

# Antxiñako fotografixia



## Kolejialdeko zubi zaharra

Unibersidadeko zubixak aldakuntza ugari sufridu ditu azkenengo ehun urte honeitan. Haundixena, seguru asko, 1920 aldera trena Oñatira ekarteko, **Kolejialde** inguruan egin ziran obratan izango eben. Fotografixa honeik ordukuak izan leike. Lehenenguan zubi zaharra zutik ikusten da orainddio, eta barrixa egitteko errekan diharduein langilliak; kuriosua da hiru gizonen artian darabillein tramankulu hori: ura atarateko bonba

baten itxuria dako. Bestian, barriz, zubi barrixa jasoteko eta, akaso, estaziñua egitteko harlanduak moldaitten dabitz hargiñak eta igeltseruak errekiak bestaldetik; hemendiko aldiari, unibersidadeko pilastroiaren onduan, hiru "injiniero" obren martxia jarraiketan.

Gu Oñatiarrekin

 **Guipuzcoano**  
BANKUA



PEUGEOT-TALBOT

**OÑATI K. Elk. GARAJEA**

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50 OÑATI

# Antxiñako fotografixia



**B**igarren argazkixan gaur egunian botata dugu etxe bat be agerketan da. Ospitalarena zan, eta gerora be urtietan Ospitalak berak ortulanetarako ebaliko zittuan lurren onduan jasota eguen. Izen esanguratsu samarra eukan: **Gorriñetxe**. Izan be, orain **R. M. Zuazola** Institutuak beteten dauen orubeian eguen Ospitalako gaituak eruatzen zittuain Ibarra aldeko etxe bakarti horretara, Ospitalian bertan eukituko modukuak

etziranean: adibidez, gaitz pegakorrak, izurrixak eta antzekuak eukain gaituak edota, burua galdu ondoren, dominau eziñezkuak eruatzen zittuain **Gorriñetxera**.

J. E.

Argazkixak Rafael Kernstock-enak dira.



## SAN MIGVEL Kooperatiba

Supermerkatua: Kale Barria, 8.  
Tfnoa: 78 12 17  
Mendirako tresnak: Kale zaharra, 27.  
Tfnoa: 78 17 82

## ALOÑA

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea  
Tfnoa: 78 24 91  
OÑATI